




goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-05-25
ASTELEHENA
ZENBAKI
BEREZIA
15. URTEA
GOIENA.EUS
TOKIKOM



Datuotan, Aramaio
(Araba) konituan
hartuta dago.

DEBAGOIENEN BOTO BANAKETA

2015	2011
EH Bildu %39,86 12.933 46 zinegotzi	BILDU %46,62 60 zinegotzi
EAJ %38,43 12.468 40 zinegotzi	EAJ %22,68 24 zinegotzi
PSE-EE %7,50 2.432 6 zinegotzi	PSE-EE %10,46 8 zinegotzi
Irabazi %5,26 1.707 4 zinegotzi	ARALAR %8,38 10 zinegotzi
Baleike Arrasate %3,67 1.192 2 zinegotzi	PP %4,27 1 zinegotzi
PP %1,71 554 0 zinegotzi	EB %3,00 1 zinegotzi
BESTE %1,81 327 1 zinegotzi	BESTE %3,31 11 zinegotzi
ZURI %1,76 571 -	ZURI %1,28 -

BOTO GEHIEN JASO DUTEN ALKATEGAIK



ARRASATE MARIA UBARRETXENA | EAJ



BERGARA JUANJE ALBERDI | EAJ



OÑATI MIKEL BIAN | EH BILDU



ARETXABALETA UNAI ELKORO | EAJ



ESKORIATZA JOSE RAMON ZUBIZARRETA | EAJ



ANTZUOLA BERNARDO KORTABARRIA | EH BILDU



ARAMAIO LIERNI ALTUNA | EH BILDU



ELGETA IRAITZ LAZKANO | EH BILDU



LEINTZ GATZAGA ENEKA ZANKADA | LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLE ELKARTEA

ARGAZKAK: EKAITZ FILARMENDI / JULEN IRIONDO / OIHANA ELORTZA / MIRARI ALTUBE / IMANOL BELOKI / MAIDER ARREGI / ARANTZAZU EZKIBEL / LARRAITZ ZEBERIO / ANDER LARRAÑAGA

Ezustekoa eman du EAJk lau herritan irabazita

- ▶ Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan nagusitu dira jeltzaleak
- ▶ EH Bilduk lehen indarra izaten jarraitzen du Oñatin, Antzuolan eta Aramaion
- ▶ Elgetan ere irabazi du EH Bilduk eta lehenengo aldiz izango du alkatea
- ▶ EH BILDUK irabazi du Debagoiengan, baina jeltzaleekiko oso alde txikiarekin
- ▶ Irabazik ordezkaritza lortu du Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Aretxabaletan
- ▶ Arrasaten bakarrik aurkeztuta, Baleike bi zinegotzirekin estreinatuko da

ARRASATE

AULKIAK 2015 EAJ 8 | BILDU 7 | PSE-EE 3 | BALEIKE 2 | IRABAZI 1
2011 BILDU 11 | EAJ 4 | PSE-EE 4 | ARALAR 1 | PP 1

Aulki trukaketa handia: bikoiztu egin du EAJk, lau galdu ditu EH Bilduk eta bi talde berrik ordezkari izan ditu

EAJ
Maria Ubarretxena

EAJ
Ibon Arrupe

EAJ
Juan Ramon Mendieta

EAJ
Ander Garai

EAJ
Amaia Zeziaga

EAJ
Juan Karlos Garitano

EAJ
Amaia Azpiazu

EAJ
Anuska Ezkurra

EH BILDU
Eneko Barberena

EH BILDU
Amaia Larrañaga

EH BILDU
Eneko Fernandez

EH BILDU
Maialen Zabaleta

EH BILDU
Piter Encinas

EH BILDU
Itxaro Artola

EH BILDU
Uñi Larrea

PSE-EE
Oscar Gartzia


PSE-EE
Veronica Lozano

PSE-EE
Victoriano Fuente

BALEIKE
Igor Urizar

BALEIKE
Eva Abuin

IRABAZI
Juan Luis Merino



ESANAK

MARIA UBARRETXENA / EAJ: "Aurrekoekin alderatuz, biderkatu egin ditugu botoak. Errolda potoloa eta zaila dugu orain aurretik; hau da, herritarrek duten itxaropenak ondo betetzea".

ENEKO BARBERENA / EH BILDU: "Tarte bat hartu beharko dugu jasotako emaitza txarren gainean hausnartzeko. Zorionak irabazleari. Saiatuko gara ahalik eta oposizio onena egiten".

OSCAR GARTZIA / PSE-EE: "Albiste bikaina da EH Bilduk ez gobernatzeari, inposizioaren jarrera ordaindu dute; berdintasunik ezaren aurka eta herri pluralago baten alde egingo dugu lan".

IGOR URIZAR / BALEIKE: "Herriak aldaketaren alde hitz egin du. Pozik gaude. Errolda handia dugu aurrean, gogor lan egingo dugu arrasatearren konfiantza merezi dugula erakusteko".

JUAN LUIS MERINO / IRABAZI: "Pozik gaude ordezkari bat lortuta. Argi dago EAJren eta PSE-EEren arteko itun bat bat egongo dela. Guk justizia sozialaren alde egingo dugu lan".

BERGARA

AULKIAK 2015 EAJ 8 | EH-BILDU 7 | IRABAZI 1 | PSE-EE 1
2011 BILDU 9 | EAJ 5 | ARALAR 2 | PSE-EE 1

Ezustean irabazi du EAJk Bergaran, EH Bilduri 360 botoko aldea aterata; zortzi zinegotzi izango ditu Udalean

EAJ
Juanje Alberdi

EAJ
Elena Lete

EAJ
Agurne Barruso

EAJ
Lander Arregi

EAJ
Izaskun Labaien

EAJ
Sabino Azkarate

EAJ
Itziar Arregi

EH BILDU
Joseba Moñux


EH BILDU
Josu Elortza

IRABAZI
Aiert Lizarralde

PSE-EE
Mari Carmen Barrenetxea

EAJk %51 handitu du boto kopurua; Bildu eta Aralarren 1.500 boto galdu ditu EH Bilduk

Irabazi alderdia, zinegotzi bat eskuratuta, Udalean izango da datozen lau urteetan



ESANAK

JUANJE ALBERDI / EAJ: "Lehenik eta behin, eskerrak botoa eman diguten herritar guzietan. Zerrenda botzatuen izateko helburua geneukan, eta, hori lortuta, bihar bertan hasiko gara lanean".

AGURNE BARRUSO / EH-BILDU: "Emaitzak kritikoki eta ondo aztertutako ondoren oposizio lanean jarraitzeko asmoa dugu. Jaitsiera bat aurreikusten genuen, baina ez tamaina horretakoa".

AIERT LIZARRALDE / IRABAZI: "Pozik gaude Udalean egotea lortu dugulako; benetako balioekin gatz, ezkerreko balioekin. Abstentzioak deslegitimatu egiten du politika".

MARI CARMEN BARRENETXEA / PSE-EE: "Asko poztu nau ordezkari izanik; lan handia egin dugu hori horrela izan zedin. Bestetik, nire zorionik beroena EAJri, merezi zuten".

OÑATI

AULKIAK 2015 EH BILDU 10 | EAJ 7
2011 BILDU 11 | EAJ 6

EH Bilduk ondo eutsi dio, zinegotzi bakarra galduta, baina 2011n baino 400 boto gutxiago lortu ditu

EH BILDU
Mikel Biain

EH BILDU
Leire Zumalde

EH BILDU
Oier Irizar

EH BILDU
Susana Altuna

EAJ
Miren Elgarresta

EAJ
Lourdes Idoiaga

EAJ
Amaia Erostarbe

EH BILDU
Irati Etxeberria

EH BILDU
Borja Moia

EH BILDU
Nerea Zubia

EH BILDU
Kepa Zelaia

EH BILDU
Ana Martin

EH BILDU
Rafael Kortabarria

EAJ
Jon Kepa Gerrikagoitia


EAJ
Ritxar Fernandez

EAJ
Marijo Etxegoien

EAJ
Jabi Baltzategi

2011n baino 500 boto gehiago lortu ditu EAJk, botoen %41; aurrekoan, %31,48 izan ziren

EAJ da gora egin duen bakarra; EH Bilduk, PSE-EEK eta PPK behera egin dute



ESANAK

MIKEL BIAIN / EH BILDU: "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Zinegotzi bat gutxiago lortu dugu, baina lau urteko desgastearen ondorioa da. Baina oso-oso pozik gaude emaitzak berretsi ditugulako; gobernatzeko beste modu bat ekarri dugu Udalera, eta herritarrek gustura hartu dutela bistan da".

MIREN ELGARRESTA / EAJ: "Emaitza gazi-goza da; Debagoienan eta orokorrean izandako emaitzekin oso pozik gaude, eta Oñatin ia-ia zortzigarren zinegotzia lortu dugu. Baina EAJk Oñatin irabaztea ez zen batere erraza, EH Bilduk hamaika zinegotzi zituelako eta guk, sei; baina 539 boto gehiago lortu ditugu".

ARETXABAETA

AULKIAK 2015 EAJ 6 | EH BILDU 5 | IRABAZI 1 | PSE-EE 1
2011 BILDU 7 | ARALAR 3 | EAJ 2 | PSE-EE 1

Aretxabaetarrek aldaketaren aldeko hautua egin dute eta EAJ izan da nagusi zinegotzi kopurua hirukoiztuta

EAJ
Unai Elkoro

EAJ
Nerea Etxabe

EAJ
Aitor Gabilondo

EAJ
Mikel Uribebarria

EAJ
Pili Leanizbarrutia

EAJ
Joxe Migel Uriarren

EH BILDU
Xabier Igartua

EH BILDU
Jon Albizu

EH BILDU
Oihane Etxebarria

EH BILDU
Irati Pagoaga

EH BILDU
Hector Prieto

IRABAZI
Luis Mariano Gomez


PSE-EE
Miren Lorea Lana

Bi zinegotzi izatetik sei izatera pasatu da EAJ; euren ere ez zuten espero halako emaitza onik

EH Bilduk gutxienez aurreko zazpi zinegotzietatik eutsi gura zien, baina bi galdu ditu

Irabazik PSE-EEK baino 25 boto gehiago eskuratu ditu eta ordezkari izango du

PSE-EEK ordezkari eutsi egin dio, nahiz eta boto gutxi eskuratu duen



ESANAK

UNAI ELKORO / EAJ: "Oso pozik, arduratuta apur bat ere bai, ez gendelako espero halako aldaketarik. Baina oso gustura, bai horixe, eta lanerako gertu".

XABIER IGARTUA / EH BILDU: "Ez genuen espero horrelako emaitzarik. Zazpi ez zen oso emaitza ona izango, eta hortik beharrik ez genuen espero. Kiroletasunez hartu eta oposizioa".

LUIS MARIANO GOMEZ / IRABAZI: "Oso pozik gaude; ordezkari lortu dugu, herritarrek konfiantza eman digute eta orain izango dugu aukera erakusteko bete egingo dugula esandakoa".

MIREN LOREA LANA / PSE-EE: "Oso pozik nago, eskerrak eman gura dizkiet konfiantza eman didaten aretxabaetarrei. Bihotz-bihotzetik lan egingo dut Aretxabaetaren alde".

ESKORIATZA

AULKIAK 2015 EAJ 5 | EH BILDU 4 | ELIZATEAK 1 | IRABAZI 1
2011 BILDU 6 | ELIZATEAK 2 | EAJ 1 | PSE-EE 1 | EB-BERDEAK 1

Alderdi jeltzaleak 867 botorekin irabazi ditu udal hauteskundeak, EH Bildurekiko 227 botoren aldearekin




2011n zinegotzi bakar bat izatetik bost zinegotzi izatera pasa da alderdi jeltzalea

EH Bildu alderdiak orain arte egindakoa baloratu eta erreflexionatu egin beharko du

Elizateen alderdiak, zinegotzi bakarra lortuta, herria auzoekin batzearen alde jarraituko du

%66,86k eman dute botoa Eskoriatzan: 3.169 pertsonatik, 2.119k



Errolda: 3.176 Abstentzioa: 1.057 (%33,28)
1: Ezker Batua - Berdeak alderdiaren datuak kontuan hartuta.

ESANAK

JOXE RAMON ZUBIZARRETA / EAJ: "Guztiz hunkituta nago. Espero ez nuen emaitza da. Lehenengo gauza: eskoriatzarrei eskertzea, gudan jarri duten konfiantzarengatik".

AITOR ZUBIZARRETA / EH BILDU: "Herriak esan du esan beharrekoa, eta kito. Emaitzak ikusita uste dugu jendeak ez duela ulertu gure lana, eta hemendik aurrera lanean jarraituko dugu".

IÑAKI KEREXETA / ELIZATEAK: "Zinegotzi bat izatea zen gure helburua; hau lortuta, eskerrak eskoriatzarrei emandako konfiantzarengatik. Herriari, eta batez ere irabazleari".


RAFA BERNAL / IRABAZI: "Guretzat erantzun ona izan da: aurreko agintaldian 169 boto izan genituen eta aurten 183; boto gehiago jaso ditugu. Beraz, balorazioa positiboa da".

JOSE LUIS CANTERO / PSE-EE: "Pena izan da, gure mezua ez diogu herriari ondo helarazi. Etorkizunean zinegotzia berreskuratzea espero dugu".

ANTZUOLA

AULKIAK 2015 EH BILDU 7 | EAJ 4
2011 BILDU 7 | EAJ 3 | PSE-EE 1

EH Bilduk zazpi zinegotzi mantendu ditu eta EAJk bat gehiago, lau eskuratu ditu; PSE-EE kanpoan geratu da




EH Bilduk gehiengo absolutua eskuratu du eta zituen zazpi zinegotziak mantendu ditu

Abstentzioak gora egin du hiru puntu; 2011n %27,07 izan zen eta aurten %30,07 izan da

EAJk gora egin du bototan; 2011n 288 boto lortu zituen eta aurten, aldiz, 339 boto

PSE-EEk behera egin du eta orain dela lau urte baino 52 boto gutxiago lortu ditu: 89



Errolda: 1.673 Abstentzioa: 503 (%30,07)

ESANAK

BEÑARDO KORTABARRIA / EH BILDU: "Oso pozik gaude. Zortzigarren zinegotzia lortzearekin gura, justu-justu, hamaika bototara geratu gara; pena izan da, baina parte-hartzea ere jaitsi egin da. Zazpi zinegotzi mantentzea lortu dugu eta balorazio oso positiboa egiten dugu EH Bilduko taldekideok".

LUIS JAVIER TELLERIA / EAJ: "Benetan pozik gaude. Bototan gora egin dugu eta laugarren zinegotzia eskuratzea lortu dugu, gainera. Bat gehiago gara orain; EH Bildu eta gu aurrez aurre izango gara, baina elkarlanean aritzeko. Pixka bat indartsuago sentitzen gara eta pixkanaka goraka joatea espero dugu. Debagoienean gertatu denaren isla izan da".

MIREN GALLASTEGI / PSE-EE: "Eskerrik asko botoa eman diguten 89 herritarrei; eskerrik asko enplegua, garapen ekonomikoa eta zerbitzuen kalitatea mantentzearen alde botoa eman duten antzuolarrei; zorian EH Bilduri, eta espero dugu elkarriketa eta negoziazioa oinarri izanda herri anitz baten eta integraziaile baten alde lan egitea".

ELGETA

AULKIAK 2015 EH BILDU 5 | GU GEU ELGETA 4
2011 ARALAR-IND. 4 | EH BILDU 3 | EAJ 2

Iraiz Lazkano: "Herritar guztiak hartuko ditugu kontuan, udaletxeko ateak denondako egongo dira zabalik"




Iraiz Lazkano izango da Elgetako hurrengo alkatea; gehiengo osoarekin gobernatuko du

Indar bozkatuena izateaz gain, Gu Geu Elgetak baino 101 boto gehiago lortu ditu EH Bilduk

Gu Geu Elgetak lau ordezkari izango ditu udalbatzan; oso pozik daude emaitzarekin

Parte hartze handia izan da oraingoan ere; boto-emaielen %76,11 izan dira botoa ematen



Errolda: 871 Abstentzioa: 208 (%23,88)
1: Aurretik parte hartu ez duten beste alderdiekin egin ez dugu kontuan. Elgetako EA her emaitzak adierazi ditugu boto-kepurarengatzena eta zuzeldi.

ESANAK

IRAIZ LAZKANO / EH BILDU: "Emaitza historikoa da, eta ohorea da herrian halako konfiantza maila sumatzea. Kanpaina garbia eta etikoa egin dugu. Gauzak oso garbi azaldu ditugu eta jendeak badaki gurekin zer dagoen. Horrek bere emaitzak ekarri ditu. Oso gai gara gobernatzeko eta ez dugu inor baztertuko. Herritar guztiak hartuko ditugu kontuan. Udaletxeko ateak denondako egongo dira zabalik, eta parte hartze prozesuak ere bai".

NEREA VILLA / GU GEU ELGETA: "Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu guregan sinistu duten elgetar guztiak. Hilabeteen sorturiko plataforma batentzat izugarritzko garaipena da hainbeste herritarrek emandako babesa. Talde moduan gure lana, hemendik aurrera, herritarrek dituzten beharrei erantzutea izango da. Lanerako prest gaude. Gogoz eta ilusioz gure betebeharrei aurre egiteko. Eta dei egin nahi dut Gu Geu Elgeta plataformara gerturatzen. Etorri eta egin zuen ekarpenak. Kontuan hartuko ditugu".

ARAMAIO

AULKIAK 2015 EH BILDU 6 | EAJ 3
2011 BILDU 6 | ARAMAIOKO ALKARTASUNA 2 | EAJ 1


EH Bildu garaile, eta EAJk nabarmen egin du gora



LIERNI ALTUNA / EH BILDU: "Herritarren babesa jaso dugu; hauteskundeak irabazi ditugu, eta, gainera, alde handiarekin. Pozik nago. Herritarrek gure programan eta orain arteko gestioan konfiantza izan dute".

RAFAEL BENGOA / EAJ: "Oso emaitza onak izan dira; hala ere, herritarren gehiengoaren babesa ez dugu izan. Oposizio konstruktiboa egingo dugu, egiten duguna Aramaioaren onerako izango delako".

JAVIER LASARTE / PSE-EE: "Lierni zoriondu nahi dut, lehenengo; bigarren, gure boto emaiak eskertu gura ditut, izaera errebeldeagatik; eta, azkenik, esan, Aramaioaren alde lan egiteko gogoari eusten diodala".




Errolda: 1.193 Abstentzioa: 355 (%29,66)

ESANAK

LEINTZ GATZAGA

AULKIAK 2015 LGHE 5
2011 LGHE 7

"Gogotsu hartzen dugu erroka"



Errolda: 192 Abstentzioa: 71 (%36,98)

ESANAK

ENEKA ZANKADA / LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLE ELKARTEA: "Emaitza sorpresa ez izan arren, oso pozik gaude. Parte-hartzea %63koa izan da; gogotsu hartzen dugu erroka. Orain arte bezala, lan egiteko prest goaz Udalera".

GIPUZKOA

Maria Agirre | Kazetaria

"Aldaketaren aldeko kanpainako leloek, eragina izan dute"


"EAJ gogor egin du aldaketaren alde, hauteskunde kanpainan behin eta berriz erabili duen leloak adierazi duen moduan. Emaitez erakusten dute lelo hori herritarren artean ondo itsatsi dela eta eragina izan duela. Badirudi botoa nori eman ez zekiten askok EAJJn

aurkitu dutela boto baliagarria. Azpimarragarria da, era berean, Ahal Dugu alderdia indartsu sartuko dela Aldundian. Donostian ere irakurketa antzerkara egingo nuke: EAJren estrategia etengabe aldaketaren alde egitea izan dela EH Bilduren gobernu

iraungita zegoela sarritan esanaz. Estrategia hori ona izan da EAJren tza eta uste dut euresko baino boto gehiago lortu dituztela. EH Bilduk, bestalde, hausnarketa bat egin beharko duela uste dut. Ikusi egin beharko da, orain, koalizioan bertan eragingo duten emaitzek".



ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
EAJ	9
PSE-EE	7
EH BILDU	6
PP	3
IRABAZI	2
GUZTIRA	27



BIZKAIA

Marijo Deogracias | Kazetaria

"Lehenengoz Bilbok alkate euskalduna izango du"


"Ez zen erraza EAJrendako Bilbon gehiago absolutuari eustea; batetik, hautagaia berria zen, eta, bestetik, Azkuna 1999tik egin izan da bertan. Jeltzaleek bi zinegotzi galdu dituzte eta horrekin gehiago absolutua, baina, lehenengoz, Bilbok alkate euskalduna izango du.

Bestetik, Batzar Nagusiei dagokionez, EAJk eutsi egin dio bere feudoari eta hori aurreikusitakoa zen. Gipuzkoan gertatu den moduan, Bizkaian ere herri askotan gailendu zaio EAJ EH Bilduri. Gemikan, esaterako, 2011n EH Bilduren aurkeztu zen EAJko hautagaia EAJren aurkeztu da oraingo eta sei

zinegotzi eman dizkio EAJri; gehiago absolutua eskuratu du alderdi jeltzaleak. Lekeition ere joera hori errepikatu da eta EAJ irabazi egin dio EH Bilduri. Baita Elantxoben ere. Aipagarria da, bestetik, Barakaldon lehen indarra dela lehenengoz boto kopuruan, PSE-EEren aurretik".



ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
EAJ	13
EH-Bildu	4
PSE-EE	4
PP	4
Udalberri	2
Si se puede	2
GUZTIRA	29



ARABA

Felix Iriarte | Kazetaria

"PPk eutsi egin dio Gasteizi egindako kanpainari esker"


"Arabako Biltzar Nagusietan EAJk aurre hartu dio berriro PPri, eta aipatzekoak dira PSE-EEren beharokada eta Ahal Duguren sarrera indartsua. Hori garrantzitsua da; izan ere, ezker-eskuin ardatzari erreparatu EAJren eta PPren artean

gehiengoa izateko aukera izaten lehen; eta orain iraulketa dago ezkerreko alderdiak gehiago direlako eta Ahal Duguk zer eragingo duen aliantzetan, baina, behintzat, ezkererantz joko du. Gasteizi dagokionez, PPk zinegotzi kopuruari eutsi dio, beste leku

askotan galdu egin dituenean. Horren arrazoiak kanpainan egin daitezke: batetik, laguntzen kontua dela-eta; bestetik, EH Bilduren etorrera mehatxu gisa erabili izanagatik. Horrela, PSE-EE edo EAJrenak izan zitezkeen boto batzuk jaso ditu, ez da kasualitate-eta EAJk bat galteza".



ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
PP	9
EH BILDU	6
EAJ	5
PSE-EE	4
HEMENGGAUDE	2
IRABAZI	1
GUZTIRA	27



Xabier Letona | Kazetaria

"Aldaketa Nafarroako Gobernuan eta udalerrietan"


"Boto bakarragatik baldin bada ere Iruñean aldaketa izan da. Lehen indarra UPN izan da diferentziak, baina bigarrena EH Bildu. Horrek esan nahi du, ziurrenik, Joseba Asiron izango dela Iruñeko hurrengo alkatea. Emaitez justu-justuak izan dira,

baina nahikoa aldaketa izateko, horixe azpimarratu behar da, aldaketa izan dela. Datozen egunetan ikusi beharko da. Nafarroako Gobernuko lehia ere estua izan da, baina aldaketa izan da. Oposizioak irabazi du: Geroa Bai EH Bildu, Podemos eta Ezkerra. Horrek





esan nahi du Uxue Barkos izango litzatekeela, itunak gauzatu gero, lehendakaria. Hala, aldaketa izango da bi instituzio nagusietan. Udal hauteskundeetarako esan gurrako nuke lehen aldia dela UPN alderdiak irabazi duela botoetan, baina zinegotzietan EH Bilduk".



ALDERDIA	ZINEGOTZIAK
UPN	10
Geroa Bai	5
EH Bildu	5
PSN	3
Aranzadi	3
Ezkerra	1
GUZTIRA	27



GIPUZKOAKO 51 BATZARKIDEAK



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK		EAJ	EH BILDU	PSE-EE	AHAL DUGU	PP	IRABAZI	HERRITARRAK	UPD	ZURIAK
Errolda: 556.038										
Boto emaitzak: 360.904										
Abstentzioa: %35,09										
BOTOAK		112.933	103.101	59.046	43.136	19.388	8.451	5.262	1.127	5.201
%		%31,57	%28,82	%16,50	%12,06	%5,42	%2,36	%1,47	%0,31	%1,45
AULKIAK		18	17	9	6	1	-	-	-	-

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Ekarrea Olatara Lizentziaduna 31 20500 ARABAKATE 132 josiola-kalea Lehen Aldekoa Iruñea Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00 berrik@goiena.com

Maketa Waki Murbe, Imanol Soriano, Kepa Morlejo

Publizitatea Mireia Larrañaga, Aneke Murillo, Zorita Martin, Inarain Elortza

Zuzendaria Iruñea Iruñeko Argitaletxeak

Zuzendaria Eneko Arzaketa

Erredaktore burua Monika Belsteegi

LAGUNTZAILEAK

HARPIDETZA Arnasate 20500 Olatara Lizentziaduna 31 132 josiola-kalea Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00 harpidetza@goiena.com

Logo Gordailua: SS-965/2014 ISSN: 2174-369X

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK oniritziaren, ez bestelako oniritziaren kolaboratzaileek, adierazketa litzien erantzukizunik.



LEHEN BISTARAZOA

MIKEL LEZAMIZ
Soziologoa



EAJ irabazle eskualde koloretsuan

Debagoiengan aldaketa gertatu da EAJk lau herritan irabaziz -Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan- eta herri guztietan gorantz igoz aurreko lau urteko hauteskundeekiko. Zoriondu egin behar zaio. Beste lau herritan EH Bilduk mantendu egingo du alkatetza gehiengoa lortu duelako. Hala ere, botoetan jaitzi egin da guztietan. Egoera politiko koloretsuagoa daukagu, beraz. Mankomunitatean aldaketa etor daiteke botoei begiratzuz.

Gure eskualdean, laburbilduz, hau gertatu da: EAJk irabazi du eta asko igo du, EH Bilduk botoak galdu ditu eta lau udaletan nagusitasuna galdu du, PSE-EE ere beherantz joan da, PP desagertu egin da udaletatik, eta Irabazik nahiko igo du eta emaitza onak ateratu ditu. Era berean, erakunde berri bat jarri da Arrasateko Udalean, Baleike Podemos Espainol Estatukoaren kordelekoa.

Gipuzkoa osoan antzerako datuak agertu dira eta EAJ garaile irten da. Gure Diputazioetan ere antzeko emaitzak lortu dira eta Nafarroan iraultza politikoa etor daiteke, aukera asko baitago UPNri lehendakaritza kentzeko Geroa Bairen alde, EH Bilduren, Podemosen eta Ezker Anitzaren botoak batuz.

Baina nahiz eta boto gehien ateratu alderdi batek, horrek ez du esan nahi berak hartu behar duenik boterea. Eta hori gertatzen da sarritan eta gertatuko da diputazio eta udalbatza batzuetan; Madrilen, adibidez.

"Mankomunitatean aldaketa etor daiteke botoei begiratzuta"

Ekainaren 13an zer gertatuko den ikusteko dago alkateak aukeratzekoan, EAJk irabazi dituen lau herritan ez baitu gehiengorik, eta beste alderdien batuketak alkatetza eta boterea ken diezaieke. Beharbada, alkatetzetan ez da izango akordio berezirik, baina eguneroko erabakietan multzo desberdinak egiteko aukera

ugaria izango dela aurreikusten dugu. Arrasaten, esaterako, PSE-EE sarritan giltza bihurtu daiteke EAJrekin batera botatuz beste ezkerrekoen aurka. Orokorrean, lau udal horietan aukera bi izan daitezke: EAJk bakarrik gobernatu eta puntuz puntuko adostasunak lortu alderdiren batekin, edota programa osoarekin negoziatu hasieratik eta ordezkari batzuk eman lagunkide izango duen alderdi horri. Badirudi lehen aukera izango dela, baina lau urte interesgarri izango ditugu aurrerantz. Herriak irabaz dezala.

MIKEL IRIZAR
Iritzi emaila



Sorpresa eta guzti

Hauteskunde gauak konfirmatu ditu hainbat aldaketa garrantzitsu, Nafarroak oso berandu arte izan ez bada ere. Podemos-Ahal dugu sartu da euskal erakundeetan kopuru txukunetan, Espainiak batez bestearen oso azpitik, baina eragiteko moduan alderdi ugari ingurunean. Ez, ordea, Ciudadanos, eta berdin UPD, hauek ez dute lekurik euskal politikan. Konfirmatu da -eta nola- popularrei aurreikusten zitzaizkien porrota, Marotoren salbuespenarekin. Zer pentsa ematen du ikusteak nolako mezuak erabili dituen eta nolako saria jaso duen. Sozialistek ere izan dituzte galerak - Barakaldo nagusiki-, baina baita lorpenak ere -Pasaia edo Lasarte-Oria Gipuzkoan-. Baina sorpresa potoloa gertatu da Gipuzkoan EH Bilduren eta EAJren emaitzekin. Ezker abertzaleak emaitza onak izan ditu, oro har, baina txarrak Gipuzkoan eta nabarmen Debagoiengan. Arrasateko zerrendaburua -Eneko laguna- zintzo mintzatu da: "Lasai hausnartuko dugu galeraren arrazoiez. Bizitza aurrera doa".

Pentsa daiteke Bilduk ez duela ondo kudeatu boterearen zorabioa. Aukerak ikusi eta berehala gauzatu nahi izan ditu, kontuan hartu gabe gehiengo osorik ez zuela. Eta horrek zigorra jaso du hautesleen aldetik. Seguruena, epe luzeagoko

"Ezker abertzaleak emaitza onak lortu ditu, oro har, baina txarrak Gipuzkoan eta nabarmen Debagoiengan"

estrategiak landu beharko ditu, asmoak partekatuz eta adostasunak eraikiz. Bigarren euskal indarra da eta ondo hedatzen ari da lurralde guztietan.

Bi irabazle: EAJ eta Nafarroa. Jeltzaleek lidergo argia eskuratu dute egoera bihurri hau kudeatzeko autonomia erkidegoan. Gipuzkoan

saria jaso du oposizioan egindako lanari esker. Eta Debagoiengan berreskuratu egin ditu udal esanguratsuenak... Oñati salbu. Bitxia da hainbeste urtez jeltzaleak nagusi izan ondoren, nola eutsi dion ezker abertzaleak.

Nafarroan, azkenik, askoren ametsa bete da. Gehiengo justua metatu da aldaketaren alde, bihotzekoak gertatzeko arriskuarekin izan bada ere. Hemen zegoen niretzat itxaropen nagusia eta aukera dago politika suntsitzaile bat hankaz gora jartzeko. Espero dut asmatuko dutela.

ESANAK

"300.000 boto eman dizkigute, baina, zoritxarrez, ez dira nahikoa izan"

ASIER ARRAITZ | EH BILDU

"Larraitz, entzun!!: Euzko Alderdi Jeltzalea txapeldun!!!" [Twitterren]

MARIA EUGENIA ARRIZABALAGA | EAJ

"Giltzetako bat gara Araban eta Gipuzkoan gobernuak osatzeko"

ROBERTO URIARTE | AHAL DUGU

"Urrunago joan nahi genuen arren, ondo merezitako saria lortu dugu"

IDOIA MENDIA | PSE-EE

"Bihotzean dugun banderaren alde lanean jarraituko dugu"

JAVIER MAROTO | PP

EGUNEKO IRUDIA

Hauteskunde eta jai biharamuna

Bergaran bat egin dute Pazkoek, herriko jai nagusiek, hauteskunde egunarekin, eta hori igarri egin zen atzo hauteslekuetan. Irudian agertzen den herritarrek ez du zalantzarako lekurik lagatzen: jaietako kamisetarekin, kapelarekin eta barraketan irabazitako txilibituarekin joan zen bozkatzera. Argazkilariak hura harrapatu zuen, baina halako gehiago izango ziren. Hauteskunde-biharamuna izango ote du gaur...



IMANOL, SORIANO

Goiena Klubean bazkidetzeko: 943 25 05 05 kluba@goiena.eus

GOIENA KLUBEKO ABANTAILAK

'Puntua' aldizkaria

etxean jasoko duzu egubakoitzero.

Deskontuak komertzioetan

Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.

Deskontuak

Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

goienakluba Euskara irabazle, denok irabazle!